



2026ko 61. BEHOBIA - SAN SEBASTIÁN

PATINATZAILEEN ARAUDIA

1. artikulua

Behobia - San Sebastián 2026 patinetan egingo den proba **korrikalarien araudiaren** de la prueba (**Ikusi hemen** araudi osoa) arabera ospatuko da, honen ondoren doazen gehigarriekin gainera.

2. artikulua

Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da. Gainontzeko babesgaiak gomendagarriak dira.

Lerroko patinetan edo tradizioaletan (quad) bakarrik onartzen da partehartzea, gehienezko luzera 50 cm izanik.

ERABAT DEBEKATUTA dago makilak erabiltzea.

3. artikulua

Dortsala **aurrekaldetik** eraman behar da (bularrean) bai zenbakia baita babesleen izena garbi ikusten direlarik.

4. artikulua

Patinatzaileen irteera 9:35tan izango da Behobian.

Patinatzaileen **helmuga 10:55etan itxita** geratuko da Boulevardean.

Erratz lanetan lastekerketa ixten ibiltzen diren patinatzaileen atzetik ateratzea erabat debekatuta dago.



5. artikulua

Sailkatzeko gehienezko denbora **ordubete eta hoge minututakoa (1h 20')** izango da, aurreneko patinatzailearen irteera denboratik hasita. Denbora hau baino gehiago egiten duten patinatzaileak ez dira sailkatuak izango. Gutxieneko bataz-besteko abiadura 15 km/h-koa da.

6. artikulua

Ibilbidean zehar zenbait ordutegi-kontrol puntu izango dira. Puntu hauetatik behar baino beranduago pasatzen diren patinatzaileak proba utzi egin beharko dute.

Denbora mugak eta tokiak hauek dira:

- **km 05 9:55**
- **km 10 10:15**
- **km 15 10:35**
- **km 20 10:55**

Ordu limitea markatzen, patinatzaile talde bat egongo da erratz lanetan. Erritmoa ezin baduzu jarraitu, **nahitaez ibilbidea utzi beharko duzu** ibilbideko hurrengo erretiratze-puntuan.

7. artikulua

Behobia - San Sebastián patinetan lasterketa herrikoia bat da, hala ere **gutxieneko oinarri fisiko zein teknikoa** eskatzen du. Ibilbidean zehar antolatzaile eta epaileak egongo dira, behar den gutxieneko maila fisikoa zein teknikoa ez duten patinatzaileak kaleratzeko gaituak direnak, beste partaideei zein beraien buruei kalterik sortu ez dezaten.

Nahiz eta herrikoia izan, Behobia - San Sebastián lasterketa bat da, **EZ paseo lasai** bat. Beraz, behar beharrezkoa da patinen gainean frenatzen eta taldean moldatzen jakitea, eta lasterketa emandako epean bukatzeko beharrezkoa den baino bataz-besteko abiadura azkarrago batean joateko gai izatea.



8. artikulua

Guztiz debekatuta dago bizikleten zein beste ibilgailuen aspirazioa aprobetxatzea, baita ere ibilgailu horiei heltzea, sailkapenetik at geratzeko arrazoia dela eta.

9. artikulua

Patinatzaile batek, edo patinatzaile talde batek, aulkidun lasterkari bat (edo parte-hartzaileen taldea) harrapatzera doanean, garaiz abisatu egin behar du, eta maniobra seinalizatu, aulkidunari kalteri egin gabe, ezta espero ez den maniobra eginez.

10. artikulua

Behobia - San Sebastián patinetan lasterketan parte-hartzaile edozein eta guztiak araudi orokorreko zein berezi honetako araudiak errespetatzeko konpromezua hartzen du, bereziki **proba uzteari** dagokion puntuan epaileek egokitzen ez badute bere maila tekniko/fisikoa, **gutxieneko ordutegia jarraitzeko gai ez bada**.

Puntu hauetan arau-haustea hurrengo 2 urteetan proban izenemateko debekua izango dutelarik lotuta.